

Lauroko landaredia PLANIFIKAZIOA
DBHko 1. mailako Plastika arloa 2026-2027 ikasturtea (iraila-abendua)

IRAILA 14-18

1. JARDUERA

Plastika arloan erabiltzen ditugun plastikagela.com webgunean eta Showbie aplikazioan **Lauroko landaredia** proiektua eta ikas-egoerari buruzko informazioa erakustea eta azalpenak egitea: ikas-egoeraren, konpetentzien, oinarrizko jakintzen, ebaluazio-irizpideen, metodologiaren, baliabideen eta planifikazioaren azalpena egitea.

UNETxeak egindako 15. GJHaren azalpen bideoa ikustea.

TEKNIKA DIGITALA: ARGAZKIGINTZA

Argazkiak nola egin azaltzea: irudia elementuekin ongi betetzea, elementuetara hurbiltzea eta irudia koadratzea. Ereduak ikusi eta aztertzea. Landare eta zuhaitz espezieen informazioa jasotzea, gordetzea, izen zientifikoa, izena euskaraz eta informaziorako esteka.

Ikastolako ingurunean Lauroko landarediaren (eta ekosistemaren) argazkiak egitea iPada erabiliz.

Bitartean, Lauroko ingurunea aztertzea eta aurkitutako hondakinen bilketa eta garbiketa egitea.

IRAILA 21-25

2. JARDUERA

OHIKO TEKNIKA: MARRAZKETA

Marrazkiak nola egin azaltzea: irudia elementuekin ongi betetzea eta irudia koadratzea. Ereduak ikusi eta aztertzea. Ikastolako ingurunean Lauroko landarediaren (eta ekosistemaren) marrazkiak egitea orri zuriak, arkatzak eta margoak erabiliz. Marraztutako landare edo zuhaitz espezieen informazioa jasotzea eta gordetzea.

TEKNIKA DIGITALA: ARGAZKIGINTZA

Ikastolako ingurunean Lauroko landarediaren (eta ekosistemaren) argazkiak egitea iPada erabiliz.

Bitartean, Lauroko ingurunean aurkitutako hondakinen bilketa eta garbiketa egitea.

IRAILA 28-URRIA 2	
3. JARDUERA	OHIKO TEKNIKA: MARRAZKETA Ikastolako ingurunean Lauroko landarediaren (eta ekosistemaren) marrazkiak egitea orri zuriak, arkatzak eta margoak erabiliz. Marraztutako landare edo zuhaitz espezieen informazioa jasotzea eta gordetzea. TEKNIKA DIGITALA: ARGAZKIGINTZA Ikastolako ingurunean Lauroko landarediaren (eta ekosistemaren) argazkiak egitea iPada erabiliz. (GUZTIRA 10 argazki gutxienez). Bitartean, Lauroko ingurunean aurkitutako hondakinen bilketa eta garbiketa egitea.
URRIA 5-9	
4. JARDUERA	plastikagela.com webguneko Lauroko landaredia proiektua atalean TEKNIKA DIGITALA: Argazkitik marrazkira SketchBook aplikazioan aurkezpena irakurtzea, azaltzea eta aztertzea, marrazki digitalak nola egin ulertu eta menperatzeko. TEKNIKA DIGITALA: MARRAZKETA SketchBook aplikazioan Ikastolako ingurunean egindako argazkiak oinarri bezala erabiliz, ikasleek landare edo zuhaitz espezieen marrazki digitalak egitea. Marrazkia zuri-beltzez egin ondoren, hau bikoiztu eta koloreztatuko dugu. Marraztutako landare edo zuhaitz espezieen informazioa jasotzea eta gordetzea.
URRIA (12) 13-16	
5. JARDUERA	TEKNIKA DIGITALA: MARRAZKETA SketchBook aplikazioan Ikastolako ingurunean egindako argazkiak oinarri bezala erabiliz, ikasleek landare edo zuhaitz espezieen marrazki digitalak egitea. Marrazkia zuri-beltzez egin ondoren, hau bikoiztu eta koloreztatuko dugu. Marraztutako landare edo zuhaitz espezieen informazioa jasotzea eta gordetzea.

URRIA 19-23	
6. JARDUERA	TEKNIKA DIGITALA: MARRAZKETA SketchBook aplikazioan Ikastolako ingurunean egindako argazkiak oinarri bezala erabiliz, ikasleek landare edo zuhaitz espezieen marrazki digitalak egitea. Marrazkia zuri-beltzez egin ondoren, hau bikoiztu eta koloreztatuko dugu. Marraztutako landare edo zuhaitz espezieen informazioa jasotzea eta gordetzea.
URRIA 26-30	
7. JARDUERA	OHIKO TEKNIKAK: ESTANPAZIOA Ikastolako ingurunean bildutako hostoak, adarrak... erabiliz hauen estanpazioak egitea tenperak, pintzelak, kartoi-meheak eta abar erabiliz. Estanpatutako landare eta zuhaitz hosto espezieen informazioa jasotzea eta gordezea.
AZAROA (2) 3-6	
8. JARDUERA	OHIKO TEKNIKAK: ESTANPAZIOA Ikastolako ingurunean bildutako hostoak, adarrak... erabiliz hauen estanpazioak egitea tenperak, pintzelak, kartoi-meheak eta abar erabiliz. Estanpatutako landare eta zuhaitz hosto espezieen informazioa jasotzea eta gordezea.

AZAROA 9-13	
9. JARDUERA	plastikagela.com webguneko Lauroko landaredia proiektua atalean PORTAFOLIO DIGITALA gaiari buruzko azalpenak aztertzea. Portafolio digitala egiteko zortzi urratsen azalpena hiru modutan dugu, Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalak (IDU) proposatzen duen bezala. Azalpen horiez gain, klasean portafolioa zuzenean egingo dugu. Portafolioa nola egin azaltzea, Pentsamenduan Oinarritutako Ikaskuntzaren <i>Atalak eta osotasuna</i> pentsamendu trebetasuna landuz portafolioaren atalak era egokian erabiltzeko. Hauek dira portafolioak izan behar dituen atalak: 1. Izenburua eta izen-abizena: ereduaren formatua, letra mota, tamaina eta itxura errespetatuz. 2. Irudiak era honetan sailkatu: marrazkiak paperean, argazki digitalak, marrazki digitalak eta estanpazioak. Landare edo zuhaitz espezieen informazioa ere ereduaren formatua, letra mota, tamaina eta itxura errespetatuz egingo da. Portafolioa nola egin azaltzea proiektuan zehar egindako irudien bilduma antolatuz eta ereduak ikusiz eta aztertuz: 1. Paperean egindako lanaren (marrazkiak paperean eta estanpazioak) argazkiak egitea eta editatzea. 2. iPadarekin egindako argazkiak sailkatzea. 3. SketchBook aplikazioan egindako irudi digitalak argazki-galerian gordetzea. 4. Showbietetik portafolio digitala Keynote aplikazioan deskargatzea. 5. Keynote aplikazioan portafolio digitala sortzea portafolioaren atalak eta ordena errespetatuz, dagokion diapositibetan irudiak gehituz (argazki-galeriatik) diapositibaren formatuari egokituta. Landare edo zuhaitz espezieen informazioa txertatu. Behar izanez gero diapositiba gehiago gehitu. 6. Portafolioa Showbiera bidaltzea pdf formatuan eta era egokian izendatuta: Abizenalzena_LAUROKO LANDAREDIA. Azalpenak bukatzerakoan ikasle bakoitzak bere portafolioa egingo du.
AZAROA 16-20	
10. JARDUERA	ikasle bakoitzak bere portafolioa egingo du. Portafolioa bukatu duten ikasleei irudi gehiago egiteko aukera eman hauek portafolioan txertatuz. Portafolio berri honek aurrekoa ordezkatuko du.

AZAROA 23-27	
11. JARDUERA	ikasle bakoitzak bere portafolioa egingo du. Portafolioa bukatu duten ikasleei irudi gehiago egiteko aukera eman hauek portafolioan txertatuz. Portafolio berri honek aurrekoa ordezkatuko du.